

Ezker eraldatzailea bizirik dago Latinoamerikan

Mundua polo bakarrek egitura inperialista batetik poloz anitzetako egitura baterako trantsizioan dago. Berri ona da, potentzien arteko pisu eta kontrapisuen joko horrek soberania esparru autonomoak eta eraldatzaileak jaio edota indartzeko abagunea sortu baitu. Testuinguru horretan garatu ziren Latinoamerikako ezkerreko gobernuak. Zoritxarrez oasi bat izan dira indar progresisten panoraman. Bitartean, munduko ezkerreko indar hegemonikoak noraezean egon dira.

Ezkerreko puristek maiz kritikatu dituzte Latinoamerikako gobernu eraldatzaileak: lehengaiekiko dependentzia, estraktibismoa, egitura ekonomikoa eraldatzeko proiektu ahulak, ustelkeria, ustezko pitzadura demokratikoak edota naturarekiko begirune eskasa. Kritika guztiak argudio sendoez sostengatzen badituzte ere, askotan mendebaldar-zentrismotik eginak dira jarrera ez eraikitzaileekin. Baina ez dezagun galdu perspektiba, ezker eraldatzailea Latinoamerikako gobernuetara iritsi zenean premiazko egoera zen nagusi herrialde horietan.

Lehenengo betebeharra neoliberalismoak sortutako miseria eta hondamendiari aurre egitea zen. Egoera zail horren erdian, erakundeak sortu eta botere-arazteko prozesua burutu zuten birbanaketa burutzeko politika publikoak aurrera eraman ahal izateko. Abiapuntua ezin kaskarragoa zen: egitura eta kultura neoliberalak zen jauna eta jabe, eta kasu gehienetan mugimendu eraldatzaileen oinarria soziala klase apalenez soilik osatzen zuten, ezkerrek ez zituen koadro prestatuak. Halere, esperimenduak emaitza txukunak lortu ditu, krisia iritsi bada ere.

Litekeena da egungo argazkia duela 12 urtekoa baino errealagoa izatea. Ameriketako Estatu Batuak despitatu



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Litekeena da egungo argazkia duela 12 urtekoa baino errealagoa izatea. Ameriketako Estatu Batuak despitatu samar harrapatu zituen orduko olatu ezkertiarak, baina ikasi egin zuten eta Barack Obamaren eskutik Latinoamerikara bueltatu ziren

samar harrapatu zituen orduko olatu ezkertiarak, baina ikasi egin zuten eta Barack Obamaren eskutik Latinoamerikara bueltatu ziren. Inflexio puntua 2009ko Manuel Zelayaren kontrako Honduraseko estatu kolpea izan zen. Orduetik AEBen esku-hartzea ugaltu eta indartu egin da, kontra ofentsiban dago: 2012an Paraguain estatu kolpe leuna egon zen Fernando Lugo kar-

gugabetzeko, 2016an Dilma Rousseff kargugabetzeko Brasilen eta 2015ean Mauricio Macri eskuindarra iritsi zen Argentinako Presidente kargura.

Gobernuen desgasteak, lehengaien prezio erorketak eta AEBen esku-hartze aktiboek esplika dezakete krisiaren parte bat, baina badago beste faktore bat. Indar aurrerakoiek polarizazio estrategiak alboratu zituzten kudeaketaren diskurtsoaren mesedetan. Eskumaren errelatoa erosi zuen ezkerrek, hau da, herritarrak karga ideologiko-politikoagatik nekatuak omen zeuden. Logika horretatik ulertu behar da Rousseffek ortodoxia ekonomiko liberalaren defendatzaile bat jarri izana Ekonomia Ministerioan edo alderdi aurrerakoien hautagai presidentzial berriak ilusioa sortzen ez zuten moderatuak izatea: Argentinan Daniel Scioli (Macriren aurka galdu zuen), Ekuadorren Lenin Moreno edo Uruguain Tabaré Vázquez.

Krisiak krisi, neoliberalismoak arazo bat du, ez du batere erraza bere eredia inposatzea hauteskunderen bitartez. Lenin Moreno traidore bat izan daiteke, baina Alianza País-ek irabazi zituen hauteskundeak; Chavismoa nabarmen indartu da; Temer gorrotatua da Brasilen eta Lulak aukera guztiak ditu irabazteko; Evo Moralesek Bolivian jarraituko duela iragarri du; El Salvadorren FMLN dago gobernuan; Uruguain Frente Amplio eta Nikaraguan FSLN. Eskuinak Honduraseko hauteskunde iruzur masibo bat burutu behar izan du boterea mantentzeko, nazioarteko begiraleek horrela aitortu dute. Macrik eta Temerrek neoliberalismoa inposatzeko presa dute, boterean gutxi iraungo duenaren presa dirudi. Zentzu horretan, 2018a erabakigarria izango da Latinoamerikan, ezkerreko gobernuen aliantzaren zutabe izan diren Brasil eta Venezuelaren hauteskunde presidentzialak daude. ■